

Ziklo-krosa ♦ Proba nagusia 12:00etan hasiko da eta David Seco bizkaitarra da favorito bakarra

Olano eta Zubeldia ziklo-kroslari

Biek Euskal Herriko Ziklo-kross Txapelketa jokatuko dute igandean, Asteasun

Xabier Usabiaga / Asteasu


LAN BERRITAN ari dira Asteasun, heldu den igandean jokatuko den Euskal Herriko Ziklo-kros Txapelketa dela eta. Estreinakoz neguko espezialitateko proba bat antolatzeko erronkari aurre egin dio Asteasuko Udalak, eta euren lanak igandean emango du fruitua. Ez dute lan makala egin antolatzaileek, espezialista guztiez gain, errepideko bi profesionalen partaide-tza ere ziurtatua baitute igandeko proba nagusirako: Abraham Olano eta Haimar Zubeldia, hain zuen ere.

Atzo Aitzondo elkartearen egin aurkezpenean esan zenez, Euskal Herriko Ziklo-kros Txapelketa antolatzeko erantzukizuna bat-batean heldu zen, herriko alkate Iñaki Amenabarrek adierazi zuenez. «Hasiera

batean proba soil bat antolatzeko asmoa baino ez genuen», esan zuen alkateak, «baina Nafarroa Euskal Herriko Txapelketa antolatzeko gauza ez zenez, guri egin ziguten gonbita eta berehala onartu genuen». Antolakuntza lanak ez dira errazak izan, proba prestatzen ari den lan taldea eskarmenturik gabea baita, baina herri osoaren borondatea azpimarratu zuen Amenabarrek. «Eskerrak

eman nahi dizkiegu babeslei, haien guztien laguntzarik gabe askoz zailagoa izango baitzen helburua lortzea». Eta antzeko hitzak izan zituen Abraham Olano eta Haimar Zubeldiarentzat. «Guretzat oso garrantzitsua da Olano eta Zubeldia Asteasun izatea, eta euren borondatez datozenez, eskerrak eman nahi dizkiegu aldezturik».

Txapelketa jokatu den barrutiak 2.500 metroko luzera izango du, eta ikusgarria da oso: barrutiko edozein tokitatik, ia esparru osoa ikus daiteke. Ez da ibilbide gogorra, baina eguraldiaren baitan egongo da zailtasunak arintzea edo areagotzea. Lehorrik, dena bizikleta gainean egiteko modukoa da. Euria egiten badu, ostera, oso nekeza egingo da belar gaineko ibilia.



Abraham Olano.

Proba nagusia, Elite eta 23 urtez azpikoena, 12:00etan jokatu da, eta 55 minutu inguruko lana burutuko dute. Esan beharrik ez da favoritoa David Seco busturiarra dela. Juniorrek 11:00etan jardungo dute, eta lehen proba kadetena izango da, 10:15etan.

«Eguraldiak lagun dezala, eta jendeak erantzun diezaila gure deiari», egin zuen gonbidapena alkateak, antolakuntzaren izenean. ETBk laburpena eskainiko du.

Olano, garai zaharrak berritzen

ABRAHAM OLANOREN hastapenak beti pistarekin lotzen badira ere, garai batean ziklo-krosean trebatua izan zen, egia esan. Kadete zelarik, 16 urterekin, Gipuzkoako txapeldun izan baitzen anoetarra, 1986an.

Beste garai batzuk ziren, Gipuzkoan, herri ortan probak jokatzeko ziren sasoiak. Gerora baina, Olano ez du soro eta belaze askorik zapaldu, eta zapaldu badu ere, gehienbat mendiko bizikletarekin izan da

Edozein moduz ere, pro-

fesionala izanik probaren batean edo bestean neurtu ditu indarrak gipuzkoarrik. Ez du onenen mailarik eman, bere sasoi urteko garai horretan ez delako onena izaten, eta arriskurik hartzeak mesede gutxi eta kaltea ugari ekar bailiezaioke.

Aspaldiko partez Olano ziklo-krosara itzuliko da heldu den igandean Asteasun. Ez du karrera irabaziko, baina ziklismo zaleari Olentzero heldu zaio, ez baita eguneroko zoria haren mailako txirrindulari bat etxean ikustea.

Gabonetako Torneoa
Tolosako Beotibar Pilotalekutik

AURTEN
GABONAK
TXAPELDUNEKIN
OSPATU

Bihar **17:45**

BELOKI HNOS.
vs
TIRAPU - ARMENDARIZ

Jose txo Lizartza
Estilork onena

Babeslea